



UPV/EHUko ordezeko irakasleentzat baldintza duinen aldeko urtebeteko borrokaren balorazioa

Gaur hemen gauden eragileok, LAB, Steilas eta ELA sindikatuak eta EHUko Prekarioen Koordinadora, arrazoi nagusi batek bildu gaitu. Izan ere, duela urtebete inguru abiatu genuen Unibertsitate Sistemaren Lege Organikoaren aurrean (USLO edo LOSU bezala ezagunagoa egin dena) Euskal Herriko Unibertsitateak izandako jarrera murriztaileak sortutako ondorio prekariztaileen aurkako borroka. Urteurren horren karietara, tarte bat hartu nahiko genuke denbora honetan gertatutakoak patxadaz baloratzeko.

Honez gero, aski ezaguna egin da, lege horretaz UPV/EHUko Errektoretzak egindako interpretazio murriztailearen ondorioz, bertako irakasle eta ikertzaile askok ordezkapenak gehienezko 800 eurotako soldata baten truke egiten ditugula; kasu gehienetan, eman beharreko irakaskuntza-orduak lanaldi osoko irakasle batek dituen orduen pareko direnean. Aski ezaguna da ere, unibertsitateko irakasle karrera bat egiteko guztiz beharrezkoa dela ikertzea eta, kasu askotan, inolako aitortpen eta laguntzarik gabe egitera behartzen gaituztela. Gainera, gogoratu behar dugu USLOk berak ikerketa ESKUBIDE eta BETEBEHAR gisa ezartzen duela irakasle-ikertzaile guztientzat.

Akaso ez dira horren ezagunak egoera horrek urte luze honetan Euskal Herriko unibertsitate publiko nagusian sortutako ondorioak. Baldintza ekonomiko prekarioak direla eta, ordezkapenak ez dira betetzen. Hainbat kasutan ikasleak denbora luzez egon dira klaseak behar bezala jaso gabe ordezkoen faltagatik. Beste hainbatetan, gainerako irakasleek ordezkatu behar izan dituzte sortutako hutsuneak, beraien lan zama biderkatuz. Denbora tarte honetan ere, hainbat lankide beraien lanpostua uzten ikusi dugu, egoera honek sortutako lan duinaren etorkizun faltaren ondorioz. Gelditu diren ordezeko kide gehienen egoera benetan tamalgarria da, gehienez 800 eurotako ordainsaria osatzeko bestelako lanak bilatuz baina apenas denbora librerik gabe karrera akademikoaren exigentzia mailaren ondorioz. Aspektu material horiez gain, lan baldintza prekarioek arrisku psikosozialak areagotzen dituzte eta langileen osasunean duten eragina ikusi dugu gure lankideen artean. Zergatik eta, doktore tesiak, nazioarteko egonaldi luzeak, inpaktuzko aldizkari zientifikoetan argitalpen ugariak eta bestelakoak jasotzen dituen urteetako esfortzu guztiak kasu askotan ez duela ezertarako balio ikusi dutelako, errektoretza talde honek USLOz egindako interpretazio murriztailearen ondorioz. Unibertsitate honetako arduradunei bikaintasunaz hitz eginez bete izan zaie ahoa, baina bertako irakasle eta ikertzaileen eskubideak etengabe zapaltzen ikusi ditugu, ordezkoen kolektiboaren existentzia bera ukatzeraino.

Baina urtebete honetan guztiak ez dira atsekabeak izan. Ordezkoekin hartutako erabaki murriztaile hau pizgarria izan da unibertsitatean dinamika mobilizatzaile bati ekiteko; ikasturte honetan 5 greba egun egin ditugu orotara, bi irakasle-ikertzaileen kolektiboko aldarrikapenak erdigunean jartzeko eta beste hiru unibertsitate osoan, sektore publiko guztian bezalaxe, ematen ari diren atzerapausoak salatu eta negoziazioari ekiteko. Urte asko egin behar dira atzera unibertsitatean horrelako gatazka maila batekin topo egiteko. Arestian aipatu bezala, egoera ez da gutxiagorako izan. Dinamika honen ondorioz, errektoretza taldea arazoa bera ukatetik inora eraman ez duten promesak egitera pasa da. Duela hilabete batzuk gatazka konpontzeko ate bat irekitzen zela aipatu zuen Estatuko Unibertsitate Idazkariarekin bildu eta gero, baina ez dugu emaitza aipagarririk ikusi. Ehundaka plaza berrien sorrera iragarri zuen, esan



gabe horietako gehienak hurrengo urteetan eman beharreko jubilazioen aurrerapena baino ez zirela. Sortzen eta sortuko diren laguntzaile doktore plazekin ez da arazoa konponduko. Leunduko du, neurri batean, ordezkapen gutxiago egingo direlako, baina ordezkapenak egiten jarraituko da, ezinbestekoak direlako eta ordezeko irakasle horiek miseriazko soldatak jasotzen jarraituko dute, egiten dituzten aktibitate guztiak ordaintzen ez zaizkielako. Beraz, arduraldi partzialeko irakasleen soldatak duintzeko ezinbestez Eusko Jaurlaritzak 41/2008 dekretua aldatu behar du.

Hitz bitan, iruzur egin nahi izan digu egungo errektoretza taldeak, etengabe errepikatuz USLOk ez zuela beste ezertarako aukerarik ematen. Iruzurraren tamaina horrenbestekoa izan da, berriki jakin izan dugula, Granadako Unibertsitatean, esaterako, jardunaldi osoko kontratazioak egiten jarraitu dutela denbora honetan. Eskaera bera egin zion Eusko Legebiltzarrak duela hilabete batzuk EHUko zuzendaritzari, baina entzungor egin zioten. Egoskorkeria baten kontakizuna izan da urte honetan bizitakoa eta orain, agerian gelditu denean ordezkoentzat lan baldintza duinak jaso ditzakeen bestelako kontratazio politika egin daitekeela, ez dute atzera egin nahi, beraien itsukeria agerian geldituko litzatekeelako.

Edozein kasutan, gaur bertan bildutakook berriro ere errepikatu nahi dugu lan baldintza prekarioen eta egindako murrizketen kontakizuna ez dela azken urte honetan hasi. Oso aspalditik datoz, baina egungo arduradunek horretan sakontzeko erabakia hartu dute. Lan-zama handitu digute azken urteotan eta hurrengo ikasturtean martxan jarriko duten JARDUN sistemarekin gehiago handituko dela aurreikusten dugu. Horrez gain, plantillaren ezegonkortasuna oso handia da eta, gainera, kolektibo ezegonkorrenak sistematikoki diskriminatzen dituzte, egoera are gehiago okertuz (behin-behineko irakasle-ikertzaile kolektibo batzuei ikerkuntza-seiurtekoak ukatuz eta lanaldi partzialekoei irakaskuntza-bosturtekoak ukatuz). Bestalde, ikertzaileen prekaritatea nabarmena da hasierako etapetan eta karrera egitea oztopoz beteta dago.

Egoera honen aurrean errektoretza taldeak mutu nahi gaitu; miseriazko egoera honetara ohitzea nahi du, irakasle eta ikertzaile otzan eta apalak bezala. Baina berriro ere adierazi nahi dugu egoera hauei aterabiderik aurkitu ezean, hurrengo ikasturtean berriro ere kalera aterako garela egoera hau salatzen. Gaur hemen adierazi nahi dugu unibertsitatearen eta gobernuaren erantzukizuna dela ordezkoen inguruan eurek beraiek sortu duten arazoari konponbidea ematea eta ez dugula etsiko hori lortu arte. Hartara, dei egiten diogu errektoretzari baita Eusko Jaurlaritzari berriari ere, eman beharreko pausu guztiak eman ditzaten egoera zentzugabe eta diskriminatzaile honekin amaitu eta ordezkapenak zentzuzko baldintzetan (soldata eta lan baldintza duin eta ez prekarizatzaileak) egin daitezen.



Valoración de un año de lucha por unas condiciones dignas para el profesorado sustituto de la UPV/EHU

Hace aproximadamente un año, los sindicatos LAB, Steilas y ELA y la Coordinadora de Precarias/os de la UPV/EHU iniciamos la lucha contra los efectos precarizadores derivados de la interpretación restrictiva de la Ley Orgánica del Sistema Universitario (LOSU) por parte de la dirección de la UPV/EHU. Con la perspectiva del año transcurrido queremos valorar con calma los hechos ocurridos en este tiempo.

Como consecuencia de la interpretación restrictiva de esta ley por parte del rectorado de la UPV/EHU, muchos miembros del personal docente e investigador realizamos sustituciones por un salario máximo de 800 euros, cuando en muchos casos las horas de docencia a impartir son similares a las del PDI a dedicación completa. También es de sobra conocido que para desarrollar la carrera de profesorado universitario es absolutamente necesario investigar y, en muchos casos, tenemos que hacerlo sin ningún reconocimiento ni apoyo. Además, debemos recordar que la propia LOSU establece la investigación como un DERECHO y un DEBER para todo el PDI.

Tal vez no sean tan conocidos los efectos de esta situación en este año en la principal universidad pública vasca. Debido a las precarias condiciones económicas algunas sustituciones no se están cubriendo. Ha habido casos en que el alumnado ha estado sin recibir adecuadamente las clases por falta de sustitutas o sustitutos. En otras ocasiones, el PDI a jornada completa ha tenido que suplir las vacantes, aumentando su carga de trabajo. En este tiempo también hemos visto a compañeras y compañeros abandonar su carrera universitaria debido a la falta de perspectiva de un puesto de trabajo digno. La situación de la mayoría del personal sustituto que se ha quedado es lamentable; necesitan otros trabajos para complementar un sueldo de, como máximo, 800 euros sin apenas tiempo libre debido al grado de exigencia de la carrera académica. Además de los aspectos materiales, las condiciones laborales precarias aumentan los riesgos psicosociales y hemos visto cómo repercuten en la salud de nuestras y nuestros compañeras. Han visto que todo el esfuerzo de años (tesis doctoral, estancias internacionales, numerosas publicaciones en revistas científicas de impacto, etc.), en muchos casos, no sirve para nada, debido a la interpretación restrictiva de la LOSU por parte de este equipo rectoral. A las y los responsables de esta universidad se les llena la boca hablando de excelencia, pero están pisoteando constantemente los derechos de su PDI, hasta el punto de negar la existencia misma del colectivo de sustitutos y sustitutas.

Sin embargo, en este año no todo han sido disgustos. La interpretación restrictiva con respecto al personal sustituto ha servido de estímulo para iniciar una dinámica movilizadora en la universidad; este curso hemos realizado un total de 5 jornadas de huelga, dos de ellas centradas en las reivindicaciones del PDI y otras tres para denunciar el retroceso que se está dando en todo el sector público, incluida la universidad. Hay que mirar atrás muchos años para encontrarse con un nivel de conflicto así en la UPV/EHU. Como se ha mencionado anteriormente, la situación merecía una respuesta firme. Esta dinámica movilizadora ha llevado al rectorado a pasar de negar el problema a hacer promesas que no llevan a ninguna parte. Hace unos meses hablaban de que se abría una puerta para solucionar el conflicto, tras reunirse con el Secretario de Estado de Universidades, pero no hemos visto ningún resultado. Anunciaron la creación de cientos de nuevas plazas, sin decir que la mayoría de ellas no eran más que el avance de las jubilaciones que se van a producir en los próximos años. No se va a solucionar el problema



con la creación de plazas de profesorado ayudante doctor. Se paliará en parte porque habrá menos sustituciones, pero se seguirán haciendo porque son imprescindibles y el profesorado sustituto seguirá percibiendo sueldos de miseria dado que no se les pagan todas las actividades que realizan. El Gobierno Vasco debe modificar el decreto 41/2008 para dignificar los salarios del profesorado a tiempo parcial.

En definitiva, el actual equipo rectoral nos ha querido estafar, repitiendo constantemente que la LOSU no permitía otra cosa. La evidencia del fraude ha sido tal que recientemente se ha sabido que, por ejemplo, en la Universidad de Granada se siguen realizando sustituciones a jornada completa. La misma petición hizo el Parlamento Vasco hace unos meses a la dirección de la UPV/EHU, pero fue desoída. Lo vivido en este año ha sido un ejemplo de terquedad y, ahora que se ha demostrado que se puede hacer otra política de contratación con unas condiciones laborales dignas para el personal sustituto, no quieren dar marcha atrás porque quedaría patente su cerrazón.

En cualquier caso, los agentes reunidos hoy manifestamos una vez más que las condiciones laborales precarias y de los recortes no han comenzado este último año. Vienen muy de atrás, pero el actual rectorado tomó la decisión de profundizar en ese camino. En los últimos años ha aumentado la carga de trabajo y prevemos que aumentará más con el sistema JARDUN que pondrán en marcha el próximo curso. Asimismo, la falta de estabilidad de la plantilla es muy elevada en la UPV/EHU. Además, se discrimina sistemáticamente a los colectivos temporales, lo que empeora aún más la situación (negando sexenios de investigación a algunos colectivos de PDI y quinquenios de docencia al PDI a tiempo parcial). Por otro lado, la precariedad de los investigadores e investigadoras en las etapas iniciales es patente, siendo la carrera investigadora un camino lleno de obstáculos.

Ante estas situaciones el equipo rectoral nos quiere mudos y mudas; quiere que nos habituemos a este estado de miseria y seamos dóciles y obedientes. Pero queremos reiterar que, de no encontrar salida a estas situaciones, el próximo curso volveremos a salir a la calle a denunciarlas. Hoy queremos manifestar aquí que es responsabilidad de la UPV/EHU y del Gobierno Vasco dar solución a los problemas que han creado en torno al personal sustituto y que no cejaremos hasta conseguir una solución. Hacemos un llamamiento al rectorado y al nuevo Gobierno Vasco para que den todos los pasos necesarios para acabar con esta situación absurda y discriminatoria y para que las sustituciones se realicen en condiciones razonables (salarios y condiciones laborales dignas y no precarias).